

EAEko NEKAZARITZAREN, BASOGINTZAREN ETA ARRANTZA ETA AKUIKULTURA PRODUKTUEN SEKTOREETAN I+G+Bko LAGUNTZAK 2017

Xedea eta helburua:

Laguntzek eraginkortasuna areagotzea eta lehiakortasuna hobetzea eta, hazkunde jasangarriaren alde egitea eta EAEko nekazaritzaren, basogintzaren eta arrantza eta akuikultura-produktuen sektoreen arteko elkarlana bultzatzea dute helburu.

Laguntza-ildoa:

- Oinarrizko ikerketako, ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuetarako laguntzak.
- I+G+B proiektuekin lotutako bideragarritasun teknikoko azterlanetarako laguntzak.
- Antolaketaren arloko berrikuntzarako laguntzak.

Proiektuen iraupena:

- Oinarrizko ikerketako, ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko eta antolaketaren arloko berrikuntzako proiektuetarako laguntzak

	Hasiera data	Amaiera data	Luzapena
Urtebete irauten duten proiektuak	Ebazpen data	2017/12/31	2018/12/31
Hainbat urtetarako proiektuak	Ebazpen data	2018/12/31	2019/12/31

- I+G+B proiektuekin lotutako bideragarritasun teknikoko azterlanetarako laguntzak

	Hasiera data	Amaiera data	Luzapena
Urtebete irauten duten proiektuak	Ebazpen data	2017/12/31	2018/12/31

Laguntzen zenbatekoa:

- Oinarrizko ikerketako, ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuetarako laguntzak
 - Oinarrizko ikerketarako: Diruz laguntzeko moduko kostuen %100eraino.
 - Ikerketa industrialerako: Diruz laguntzeko moduko kostuen %50eraino.
 - Garapen esperimentalerako: Diruz laguntzeko moduko kostuen %25eraino.
- I+G+B proiektuekin lotutako bideragarritasun teknikoko azterlanetarako laguntza, diruz laguntzeko moduko kostuen % 50eko laguntza emango zaie.

Lortutako puntuazioaren arabera, honela gauzatuko da proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntza zehatza: (Irizpideak ikusi 11. Oinarrian)

Puntuazioa	Finantzazioa
Puntu gehien lortu duten proiektuak	%100
1-5 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%95
6-10 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%90
11-15 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%85
16-20 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%80
21-25 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%75
26-30 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%70
31-35 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%65
36-40 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%60
41-45 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%55
46-50 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%50
51-55 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%45
56-60 puntu (biak barne) gutxiago lortu duten proiektuak	%40
61 puntutik aurrera	Ez da laguntzarik emango

GARRANTZITSUA: Errektoreordearen sinadura lortu ahal izateko, eskatzen den zenbatekoaren %20a, gutxienez, eskuragarri dagoela egiaztatu behar da.

Oharra: Langile-gastuak diruz lagundu daitezkeen kostuak dira.

Eskabideak aurkezteko epea eta era:

Eskaerak aurkezteko epea **2017ko urriaren 27ean amaituko da.**

GARRANTZITSUA: Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak jarraian zehazten diren epeetan jasotzen diren eskaerak aurkeztuko ditu.

Ezin izango da ziurtatuko epe horietatik kanpo jasotako eskaerak epean aurkeztu ahal izango direnik.

2017ko urriaren 16a (egun hori barne)	Eranskina bidali behar da, proposatutako langileen zerrenda eta funtsen eskuragarritasuna jasotzen duena, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak gainbegiratu dezan. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar da, gaien "EAEko Nekazaritzaren, Elikagaien eta Arrantzaren Sektoreetan I+G+Bko laguntzaka" jarrita.
2017ko urriaren 23a (egun hori barne)	Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Deialdien Atalean (Errektoregoko eraikina, Leioa) dokumentazio guztia jasotzeko azken eguna da, eskaeran UPV/EHU koordinatzaile moduan agertzen den kasuetarako. Bidali beharreko dokumentazioa: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Eskaera sinatuta ✓ Memoria

	<p>✓ <i>Ardurapeko Adierazpena</i></p> <p>Horretaz gain, pdf formatuan hurrengo dokumentuak convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali beharko dira:</p> <p>✓ <i>Eskaera sinatuta</i> ✓ <i>Memoria</i></p> <p>Dokumentu horiek Errektoreak sinatu behar ditu, horregatik, denbora nahikoarekin bidali behar dira epean aurkezten direla ziurtatu ahal izateko.</p> <p>Garaiz heltzen ez diren eskaerak ikertzaile nagusiak, berak, aurkeztu ahal izango ditu. Kasu horretan, eskaera aurkeztu ondoren, dokumentu guztien kopiak bidali beharko dira convocatorias.dgi@ehu.eus artxibatu daitezten.</p>
2017ko urriaren 27a	ESKAERAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA.

UPV/EHU ren datuak:

Hauk dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- **Erakundea:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, z/g
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa (Bizkaia)

Harremanetarako:

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA	EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA (EUSKO JAURLARITZA)
94 601 80 08 convocatorias.dgi@ehu.eus	94 5 01 63 14 s-martinez@euskadi.eus

Informazio gehiago:

http://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2017/i+d+i-2017/web01-a2nekaza/es/